

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

## 3948

*AGINDUA, 2011ko uztailaren 27koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, jarduera fisikoa sustatzeko jarduerak egiten dituzten toki-erakundeei diru-laguntzak ematea arautzen duena.*

Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, EAEko botere publiko guztiei dagokie osasuna sustatu eta indartzea jarduera sozio-ekonomikoko sektore guztietan, bizi-ohitura osasungarriak suspertzeko, arrisku-faktoreak desagerrarazteko, ondorio txarrek eraginik ez izateko eta, batik bat, osasunaren garrantziaz jabetu eta kontzientziatzeko. Zehatzago, bigarren atalak dioenaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren ardura da Euskadin osasunaren erakunde-esparrua zaintzea; xede horrekin, gomendioak eman edo neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, sektore politiko guztietan osasuna aintzat har dezaten, eta, era berean, diziplina anitzeko ekintzak bultzatuko ditu, osasun ekintzen osagarri gisa, biztanleen osasun-maila etengabe hobetu dadin.

Aipatutako legearen 3. artikuluan adierazten da Euskal Osasun Administrazioari dagokiola osasun publikoa babestea, osasuna sustatzeko neurriak hartuz.

Azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuak, Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 9.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Osasun Publikoko Zuzendaritzaren zeregina da, besteak beste, politika eta esku hartze eraginkorrek bultzatzea Jaurlaritzaren Saitetan eta instituzio publikoetan –udalerrietan bereziki–, hiritarrek osasun- eta zuzentasun-maila handiagoak izan ditzaten.

Aginduaren xedea da, beraz, osasuna sustatzea, toki-eremuetan eta osasunarekin erlazionatuta ez dauden beste sektore batzuetan egiten diren jardueren bidez. Ekimen horrek jarraitzen ditu Europako Batasunaren «Osasuna, ekimen politiko guztietan» estrategiaren gomendioak eta Osasunaren Mundu Erakundearen Osasunaren Gizarte Determinatzaileei buruz Europako Batzordeak egindako txostenaren gomendioak.

Osasun-arloaz kanpoko faktoreek ere, eragiten diotela osasunari egiaztatzea da Osasuna, ekimen politiko guztietan strategiaren funtsa. Estrategia horren elementu dinamizatzailea da jakinaraztea biztanleen osasuna eta ongizatea zaindu eta sustatu beharreko balioak direla gizarte esparru orotan. Horrenbestez, osasuna ere zaindu beharreko helburutzat hartu behar da sektore-politiketan.

Osasunaren Mundu Erakundearen Osasunaren Gizarte Determinatzaileen Batzordeak adierazi du behartsuen osasun txarra eta osasunaren arloan dauden desberdintasun handiak boterea, diru-sarrerak, ondasunak eta zerbitzuak behar ez bezala banatuta egoteak eragiten dituela, bai eta horien ondorioz sortu eta biztanleen bizi-baldintzei eragiten dietan bidegabekeriek ere. Horiexek dira, beraz, osasunaren gizarte determinatzaileak; horiek dira osasunaren arloko desberdintasun gehien sortzaile.

Deialdi honen bidez osasuna ikustarazi eta esku hartzeko toki-politiken bidez osasuna sustatu nahi ditu Osasun eta Kontsumo Sailak. Osasunaren sustapena era askotara uler daitekeenez, deialdi honen bidez jarduera fisikoa bultzatzen duten jarduerak bultzatu nahi dira.

Zehazki, EAEko udalerrri gehienek bere egin zituzten Aalborg-eko iraunkortasunarekiko konpromisoak dira osasuna ikustarazteko eta sustatzeko elkargunea. Izan ere, Aalborgeko 7. konpromisoak dio: «Osasunaren aldeko tokiko ekintza. Gure biztanleen osasuna eta ongizatea sustatzeko eta babesteko konpromisoa hartu dugu». Eta, bertan, honako hauekin erlazionatutako bost jarduera-ildo proposatzen dira: osasunaren determinatzaileak, osasunerako tokiko planak, osasunean ditugun desberdintasunak gutxitzea, osasunaren gaineko inpaktua ebaluatzea eta hiri-plangintzak egiten dituztenen gainean eragitea, beren lanean osasun publikoko iritziak sar ditzaten.

Aginduaren helburua nagusia, beraz, Aalborgeko 7. konpromisoa toki-eremuan garatzen laguntzeko egiten da. Finantzatu nahi diren jarduerak, horrenbestez, konpromiso horri egin behar diote berariazko erreferentzia.

Konpromiso horiek 1992an Rio de Janeiron (Brasil) egin zen Ingurumen eta Garapenari buruzko Nazioarteko Biltzarrean dute jatorria. Biltzar hartan onartu zen Agenda 21a, planetaren degradazioa geldiarazteko garapen iraunkorreko eredu bat sortzen lagunduko duten politika ekonomikoak, gizarteak, kulturalak eta ingurumenekoak antolatzekeo estrategia orokorra.

Eta ikusita Toki Administrazioen jardunak berebiziko garrantzia duela garapen iraunkorra sustatzeko estrategian, Agenda 21eko 28. kapituluaren deia egiten da udalerrietan tokiko Agenda 21ak sortzeko, udal-administrazioek, herritarrek, gizarte-erakundeek eta enpresek euren artean hitz egin eta adostutakoaren ondorioz.

Tokiko Agenda 21eko prozesuen ondoriozko ekintza-planak gauza zitezen, 2002ko abenduan, Udalsarea 21, Iraunkortasunaren aldeko Euskadiko Udalerrien Sarea sortu zen. Aipaturiko Sarean sartuta daude udalerrri gehienak, erakunde asko eta Eusko Jaurlaritzaren sail ugari, tartean, Osasun eta Kontsumo Saila. Sareak koordinazio eta lankidetzarako foroa izan nahi du, tokiko Agenda 21eko prozesuak ezartzen laguntzeko eta udal-kudeaketaren arlo guztietan iraunkortasun-irizpideak sartzeko, betiere Aalborgeko konpromisoak kontuan hartuz –Hiri eta Herri Iraunkorren IV. Europako Biltzarrean hartu ziren konpromiso horiek–. Xedea da udalerrien zeregina indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko garapen iraunkorrari buruzko politiketan, eta euskal gizartea gai horretaz arduraraztea.

Aginduaren edukiak bat datoz Eusko Jaurlaritzako zenbait sailek Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin jarduera eremu honetan dituen estrategiekin. Horien artean dago Jarduera Fisikoaren Euskal Planaren garapena.

Toki-eremuetan eta osasun-arlokoak ez diren bezte zenbait sektoretan egiten diren jardueren bidez osasuna sustatzeko, Osasun eta Kontsumo Sailak laguntzak emango dizkie todi-erakundeei, gure autonomia erkidegoko biztanleen osasuna eta ongizatea zaindu eta babestu dezaten, jarduera fisikoa sustatzen duten esku hartzeen bidez.

Jarduera fisikoa da aisialdian edo eguneroko bizitzan egiten dugun mugimenduzko jokabide multzoa, hau da, mugimenduaren eraginez, atsedeen-egoeran gaudenean baino energia-gastu handiagoa eragiten digutenak. Jarduera Fisikoa Sustatzeko Torontoko Gutunak argi ezartzen du egunero egin ohi den jarduera fisikoak osasuna sustatzen duela, gaixotasunak prebenitzen dituela, gizarte harremanak eta bizi kalitatea hobetzen dituela, onura ekonomikoak ekartzen dituela eta ingurumenaren iraunkortasunari laguntzen diola.

Hori dela eta, hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea jarduera fisikoak sustatzeko neurriak hartzen dituzten tokiko erakundeei emateko diru-laguntzen deialdia arautzea da.

##### 2. artikulua.– Diru-laguntza jasoko duten jarduerak.

Jarduera fisikoa sustatzen duten jarduerak lagunduko dira diruz. Jarduera fisikotzat joko da aisialdian edo eguneroko bizitzan egiten dugun mugimenduzko jokabide multzoa, hau da, mugimenduaren eraginez, atsedeen-egoeran gaudenean baino energia-gastu handiagoa eragiten diguna.

Honako jarduerak jasoko dute diru-laguntza:

- Biztanleengan, eta bereziki, sendentarioenak direnengan, bizi-estilo aktiboagoak sustatzera bideratutako jarduerak. Eguneroko bizitzako jardueretan jarduera fisikoa sartzan duten bizi-estiloaz ari gara.

- Hiri-eremuek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzen dituzten jarduerak, hain zuzen ere, leku horiek jarduera fisikoa egiteko egokituz.

- Udalerrian mugikortasun aktiboa, oinez zein bizikletaz, sustatzeko jarduerak.

- Ingurune fisikoak eskaintzen dituen aukerez baliatu eta ikastetxeetarako, lantokietarako eta udalerriko leku estrategikoetarako joan-etorri aktibo eta seguruak sustatzeko jarduerak.

Ez da finantzatuko bizikleta-bideak eraikitzea.

##### 3. artikulua.– Aurrekontuko diru-hornidura.

Guztira, 225.000 (berrehun eta hogeita bost mila) euroko aurrekontuko diru-hornidura dago 2. artikuluan zehaztutako jarduerak egiteko; hargatik eragotzi gabe, Agindu honen xedapen gehigarrian xedatutakoa.

##### 4. artikulua.– Erakunde onuradunen betekizunak.

1.– Hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen erakundeak: Euskal Autonomia Erkidegoko udal, mankomunitate, toki-erakunde, tokiko erakunde autonomo eta tokiko merkataritza-sozietateak.

Tokiko merkataritza-sozietateek baldintzak hauek bete behar dituzte: titulartasun publiko kapital soziala izan behar dute, eta bazkideen gehiengoa udalak izan behar dira. Gainera, partaide diren udalerrietako alkateek aukeratu behar izan dituzte, diru-laguntza eskatu den jarduera egiteko.

2.– Diru-laguntzak eman eta, hala badagokie, ordaintzeko esleitzeko ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo horren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzengatik hasi, eta artean izapidetzen ari bada.

3.– Eskabidea egiten duten erakundeek ezin dute izan diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekurik edo administrazio-zehapen edota zehapen penalik, ezta

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean ezarritako debeku edo zehapenik ere.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, 2. artikuluan ezarritako jarduerak egitetik sortzen direnak. Ez dira inolaz ere diruz lagunduko, ondasunak eskuratu edo zerbitzuak emateetik sortutako gastuak, merkatuko balioa gainditzen badute.

2.– Ez dira diruz lagunduko gastu hauek:

a) Diruz laguntzen diren jarduketa horien BEZari dagozkionak.

b) Diruz lagunduko den jarduketekin lotura zuzena ez duten gastuak.

c) Beharrezkoak ez diren edo behar bezala justifikatu ez diren gastuak, arrazoizkoak ez direnak edo gehiegizkoak direnak, ekonomia, eta kostua eta eraginkortasuna erlazioaren printzipioen arabera. Gastu horiek, dena den, 12. artikuluan ezarritako balioeste-organoak zehaztuko ditu.

6. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateragarri izatea.

Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste instituzio publiko edo pribatuaren batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, diru-laguntzaren kopurua gutxitu egingo da dagokion kopurura egokitzeko.

7. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Prozedura honekin erlazionaturiko izapide guztiak baliabide elektronikoak erabilia egin behar dira.

2.– Izapide elektronikoak arautzen dituzte: ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzkoak; azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua, aipaturiko Legea hein baten garatzen duena; abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuak, administrazio prozeduretan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea erregulatzen duenak; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroak sortzeari, antolatzeari eta funtzionatzeari buruzkoak, eta 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak, Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariarenak, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– ezartzen duen dokumentua onartzen duenak.

8. artikulua.– Eskabidea aurkezteko epea eta lekua.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita

2.– Eskabidea baliabide elektronikoen bidez izapidetu behar da, euskadi.net atariaren bidez:

[http://www.osanet.euskadi.net/r85-proc01/eu/contenidos/ayuda\\_subvencion/ayudas\\_entes\\_locales\\_2011/eu\\_ayuda/ficha\\_procedimiento.html](http://www.osanet.euskadi.net/r85-proc01/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ayudas_entes_locales_2011/eu_ayuda/ficha_procedimiento.html).

3.– Eskatzaileek eskabideak zein horien egiaztapenak nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ditzakete. Halaber, eskaeratik eratorritako ekintzetan, baita prozedura osoan ere, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1. artikuluan ezartzen denez.

9. artikulua.– Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

Bigarren artikuluan jasotako edozein jardueretarako, dokumentazio hau aurkeztu behar da, erakunde eskatzailearen eta garatu behar den jarduerarekin bat etorritz:

a) Eskabide-agiria eta jardueraren azalpen-txostena behar bezala beteta, betiere I. eta II. eranskinen erduei jarraiki. Eskuragarri daude: [http://www.osanet.euskadi.net/r85-proc01/eu/contenidos/ayuda\\_subvencion/ayudas\\_entes\\_locales\\_2011/eu\\_ayuda/ficha\\_procedimiento.html](http://www.osanet.euskadi.net/r85-proc01/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ayudas_entes_locales_2011/eu_ayuda/ficha_procedimiento.html).

b) Diru-laguntza eskatu den jarduera egitea onartu dela dioen erabakia, bai eta toki-erakundeak jarduera finantzatzeko egingo duen ekarpena. Dokumentua eskannerretik pasatu eta pdf. formatuan aurkeztu behar da.

c) Tokiko Agenda 21a ezartzeko prozesua abian jarri dela dioen egiaztagiria, edo, bestela, Tokiko Agenda 21en Ekintza-plana onartu dela dioen udalbatzaren erabakia, edo Tokiko Agenda 21en prozesuari egindako ebaluazio- eta segimendu-txostena. Dokumentua eskannerretik pasa eta pdf. formatuan aurkeztu behar da.

d) Eskatzailea tokiko merkataritza-sozietate bat bada, aurreko ataletan adierazitako dokumentazioaz gain, beste hauek ere aurkeztu behar ditu:

- Jarduera egitea onetsitako udalerrietako alkateen onespren-erabakia, zeinaren bidez erakunde hori(ek) izendatzen den(diren) jarduera egiletzat. Dokumentua eskannerretik pasa eta pdf. formatuan aurkeztu behar da.

Eskatzailea herritarrentzako ziurtagiri elektronikoa onartua baten bidez identifikatu bada, hauek aurkeztu behar ditu:

- Diru-laguntza eskatu duenaren alde emandako ordezkari-txostea, Merkataritza Erregistroan inskribatua. Dokumentua eskannerretik pasa eta pdf. formatuan aurkeztu behar da.

- Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutuen kopia. Dokumentua eskannerretik pasa eta pdf. formatuan aurkeztu behar da.

Eskatzailea erakundeentzako ziurtagiri elektronikoa onartua baten bidez identifikatu bada, ez du dokumenturik aurkeztu behar.

e) Finantzaketa zer jarduera egiteko eskatu den hobeto jakiteko beharrezkoa den dokumentazio osagarri oro.

10. artikulua.– Betebeharrak/Betekizunak egiaztatzea.

1.– Diru-laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituztela automatikoki egiaztatuko ditu erakunde kudeatzaileak, behar beste aldiz, eskatzaileen baimenik eskatu beharrik gabe, 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren aldaketa aplikatuz. Dekretu horren bidez, onartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratua.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen 1997ko azaroaren 11ko Legegintzako Dekretuaren aldaketa aplikatuz, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez betebeharrak hauek egiaztatuko dira:

a) Helburu berdinarekin edo antzekoarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik laguntza, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu, eta, dagokionean jaso gero, horren berri ematea.

b) Diru-laguntzak itzultzeko edo zigorra ezartzeko prozesuren batean ez egotea edo halakoren bat amaitu berri izatea.

c) Eskatzailea ez izatea laguntzak edo diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion administrazio- edo zigor-zehapenik eta horretarako ezgaitzen duen legezko inolako debekurik.

d) Tokiko merkataritza-sozietateen kasuan, adierazi behar da egunean dagoela indarreko xedapenak ezartzen dituzten zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan, arauz ezartzen den moduan.

e) Halaber, erakunde eskatzaileak adierazi behar du egiazkoak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela diru-laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.

Erantzukizunpeko adierazpenarekin batera adierazitako edo aurkeztutako dokumentuetan oinarritzko daturen bat zehaztasun gabe ematen bada, faltsua bada edo ematen ez bada, prozedura eten egingo da horien berri jakiten den unean, dagozkion erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe.

Halaber, egoera horren berri ematen duen administrazio publikoko ebazpenak zehaztu dezake interesdunak diru-laguntzaren zenbatekoa itzuli egin behar duela, hala badagokio, baita denboratarte jakin baten helburu berbererako beste prozedura bat ezin duela abian jarri ere; hori guztia, aplikatu beharreko arauetan ezarritakoarekin bat eginez.

3.– Gainerako betekizunak egiaztatzeko modua atari elektronikoa honetan zehazten dira: [http://www.osanet.euskadi.net/r85-proc01/eu/contenidos/ayuda\\_subvencion/ayudas\\_entes\\_locales\\_2011/eu\\_ayuda/ficha\\_procedimiento.html](http://www.osanet.euskadi.net/r85-proc01/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ayudas_entes_locales_2011/eu_ayuda/ficha_procedimiento.html).

4.– Eskaeraren ondorengo izapideak [euskadi.net](http://euskadi.net)/Nire kudeaketak atalaren bidez egingo dira.

11. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Osasun Publikoko Zuzendaritza konturatzen bada aurkeztutako eskabideak ez dituela aurreko artikuluetan ezarritako betekizunak betetzen, erakunde eskatzaileari eskatuko dio, hamar egun baliodunen barruan, hutsegiteak zuzentzeko eta aurkeztu behar dituen dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko dio hori egiten ez badu bere eskaera bertan behera utziko dela, Osasun sailburuordearen ebazpenaren bidez; izan ere, ebazpen hori emango du 1992ko azaroaren 26ko Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 71.1 artikuluan adierazitakoa bete dadin.

12. artikulua.– Eskabideak balioestea.

1.– Balioeste Batzordeak balioetsiko ditu eskabideak. Hauek osatuko dute batzorde hori: Osasun Publikoko zuzendariak, batzordeko lehendakaria izango da, eta hiru lurralde zuzendaritzetako Osasun Publikoko zuzendariordeak.

2.– Balioeste batzordeak artikulua honetan ezarritako balioeste-irizpideen arabera balioetsiko ditu aurkeztutako eskabideak.

3.– Balioeste Batzordeak diru-laguntzak emateko proposamena egingo dio Osasun sailburuordeari.

## 13. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.4 artikulua araber. Kanpoan geldituko dira gutxienez 50 puntuak lortzen ez dituzten eskabideak.

2.– Diru-laguntzak irizpide hauen araber esleituko dira, eta kasu bakoitzean zehaztuko den haztapenaren araber:

• Biztanleengan jarduera fisikoa egitea sustatzeari lortutako jardunaren egokitasuna eta garrantzia. Justifikazioa, helburuak, garapenaren faseak, eta ebaluazio proposamena.	Gehienez ere 40 puntu
• Jarduera-hartzaileen kopurua, udalerriko biztanle guztiak kontuan izanda.	Gehienez ere 20 puntu
• Jarduerak izango duen eragina biztanle-talde espezifikoengan, bereziki 11-18 urte bitarteko gazteengan, 65 urtetik gorakoengan, emakumeengan, minusbalotasunen bat duten herritarrengan, gaixo kroniko eta haien familiengan.	Gehienez ere 10 puntu
• Desberdintasun sozioekonomikoei eskaintzen zaien arreta berezia	Gehienez ere 10 puntu
• Jardunaren izaera berritzailea	Gehienez ere 10 puntu
• Tokiko Ekintza Planean sartutako jarduna	Gehienez ere 10 puntu

## 14. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak.

Diru-laguntzak gehienez ere zenbateko hau izango dute:

a) 7.000 biztanle baino gehiagoko toki-erakunde edo udalerriz gaindiko eremuetan, gehienez ere, diruz lagundu datezken gastuen zenbatekoaren % 50 eman daiteke, betiere ez 8.000 euro baino gehiago, proiektuko.

b) 7.000 biztanle baino gutxiagoko toki-erakunde edo udalerriz gaindiko eremuetan, gehienez ere diruz lagundu daitezken gastuen zenbatekoaren % 80 eman daiteke, betiere ez 5.000 euro baino gehiago, proiektuko.

## 15. artikulua.– Lehiaketaren ebazpena.

1.– Osasun sailburuordeak, Balioeste Batzordeak proposatuta, Ebazpena emango du, gehienez ere 3 hilabeteko epean. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Epe hori amaitu eta ebazpenik ematen ez badu, eskabideak ez direla onartu ulertu behar da, beti ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu du aurrekoa– 44.1 artikuluan ezarritakoaren araber. Hala ere, lege horrek ebatzi beharra daukala ezartzen dio Administrazioari.

3.– Osasun sailburuordearen ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu diezaiokete interesdunek Osasun eta Kontsumo sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz.

16. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

Esleitutako diru-laguntza era honetan emango da:

Diruz lagundutako zenbatekoaren % 70, diru-laguntza onartutakoan, 20. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Gainerako % 30a diruz lagundutako proiektua burutu eta diru-laguntza jasotzeko jarduerak burutu direla justifikatu ondoren.

17. artikulua.– Justifikazioen aurkezpena.

Justifikazioak bide elektronikoa erabiliz aurkeztu behar dira, euskadi.net atarian.

[Http://www.osanet.euskadi.net/r85-proc01/eu/contenidos/ayuda\\_subvencion/ ayudas\\_entes\\_locales\\_2011/eu\\_ayuda/ficha\\_procedimiento.html](http://www.osanet.euskadi.net/r85-proc01/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ayudas_entes_locales_2011/eu_ayuda/ficha_procedimiento.html).

18. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Diruz lagundutako jarduera benetan burutu dela justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu behar dira 2011ko abenduaren 10a baino lehen:

a) Diruz lagundutako proiektua osorik egin dela dioen azalpen-memoria, III. eranskinaren arabera.

b) Diru-laguntza eskatu den proiektuaren helburua eta asmoa bete direla dioen toki-erakundeko idazkariaren ziurtagiria.

c) Diru-laguntza jaso duen proiektua benetan egin dela egiaztatzen duten fakturak edo bestelako ordainketa-egiaztagiria.

d) Diru-sarrera eta gastuen zerrenda, zehaztuz, hala behar badu, beste diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuk ere jaso direla helburu berbererako.

2.– Halaber, jasotako diru-laguntzaren kontura diru-laguntza eman baino lehenago sortutako gastuak ere justifikatu ahal izango dira, baldin eta diruz lagundutako jardueren barruan sartutako ekimen eta kontzeptuen benetako gastuei badagokie eta 2011n egin badira.

19. artikulua.– Justifikatzeko aurkeztu den dokumentazioan izan daitezkeen akatsak konpontzea.

Justifikatzeko aurkeztu den dokumentazioan oker edo hutsegiteren bat antzematen bada, horri buruzko jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita 10 eguneko epea emango zaio erakundeari, okerra zuzentzeko edo dagozkion dokumentuak aurkezteko.

20. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Indarrean dagoen araudiak xedatzen dituen eta ezartzekoak diren beste betebeharrak batzuek ezarritakoa eragotzi gabe, eta, batez ere, 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, ezarritakoa eragotzi gabe, Agindu honetan ezarritako diru-laguntzak jaso dituzten erakundeek betebeharrak hauek dituzte:

a) Esleitutako diru-laguntza onartzea. Diru-laguntza onartu dela ulertuko da, diru-laguntzen esleipen-ebazpena EHAA-n argitaratu eta hamabost eguneko epean erakundeek berriaz uko egiten ez badiote.



b) Diru-laguntzak emateko eskatutako eta kontuan hartutako betekizunen bati eragiten dion edozein ezaugarri-aldaketa jakinaraztea, ahalik eta lasterren.

c) Diru-laguntza emango duen erakundeari diru-laguntza emateko eta jasotzeko erabakia hartzea eragin duten betekizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea, bai eta jarduera gauzatu dela ere.

d) Osasun eta Kontsumo Sailarekin elkarlanean aritzea jarduera horien egiaztatze-, ikuskatze-, jarraipen-, ebaluazio-, eta kontrol-prozesuetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuetatik jasotako laguntzak eta diru-laguntzak direla eta Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkion kontrol-jarduerapean jartzea, bai eta Kontuen Euskal Auzitegiak ezarritako arau zehatzetan aurreikusitakoen pean ere.

e) Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

f) Osasun eta Kontsumo Sailak babesten duela aipatzea egindako dokumentuetan, baita egindako edozein iragarkitan ere, eta Eusko Jaurlaritzako Identitate Korporatiboaren Eskuliburuan ezarritakoa jarraituz txertatuko da aipamen hori. [http://www.euskadi.net/id\\_corporativa/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/id_corporativa/indice_e.htm).

g) Toki-erakunde onuraduna Udalsarea 21eko (Iraunkortasunaren aldeko euskal udalerrien sarea) partaide bada, Sare horren logotipoa ere txertatuko da.

h) Aurkeztutako dokumentazioko informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea ematea Osasun eta Kontsumo Sailari, dohainik eta era ez-esklusiboan, eta argitaratzeko moduko formatuan, Osasun eta Kontsumo Saileko informazio-sistemetan sartu eta erabiltzeko, baita zabaldu edota argitaratzeko ere, formatu eta baliabidetan, dela bibliografikoa, ikus-entzunezkoa, informatikoa edota teknika erabiltzen uzten duena. Jasotako diru-laguntzen ondorioz izandako esperientziak eta jardunbide onak hedatzen laguntzea, Udalsareko gainerako kideei.

i) Diru-laguntza honen ezaugarriak izan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ematen dituen gainerako diru-laguntzei aplikatzen zaizkien gainerako nahitaezkoak.

21. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egin daiteke, diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, nahiz eta helburua betetzat eman, eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzak edo beste zenbait administrazio publikok edo erakunde publiko zein pribatuk beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eman badizkio. Hala, dagokion aldaketa-ebazpena emango du Osasun sailburuordeak; bertan, esleitutako diru-laguntzen zenbatekoak egokitu egingo dira berriz, emateko ezarritako irizpide eta mugak aplikatuz, eta beraz, erakunde onuradunek jasotako gehiegizko zenbatekoa itzuli egin beharko dute.

22. artikulua.– Ez-betetzeak.

Diruz lagundutako jarduerak ez badira betetzen edo burutzen, itzuli egin beharko dira jasotako diru-laguntzak, baita horien legezko interesak ere, beti ere, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari jarraituz. Diru-laguntza horiek diru-sarrera publikotzat joko dira ondorio guztietarako.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan, berariaz ezarri gabeko guztiari dagokionez, azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenean, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoak aplikatuko dira.

Bigarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa ezarri ahal izango diote interesdunek Osasun eta Kontsumoko sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 27a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,  
JAVIER RAFAEL BENGEOA RENTERÍA.

## I. ERANSKINA

### TOKI ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZA ESKATZEA, JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO EKIMENAK EGITEKO

Izartxoak (\*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

**ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA \*****1**
 Titularra       Ordezkarria
**DATU PERTSONALAK****⚡ TITULARRA**

Izena / Erakundearen izendapena \*

Dokumentu Mota \*

Lehen Abizena \*

Bigarren Abizena \*

Zenbakia \*         - 

LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua \*  Gizona  Emakumea**⚡ ORDEZKARIA**

Izena / Erakundearen izendapena

Dokumentu Mota

Lehen Abizena

Bigarren Abizena

Zenbakia         - 

LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua  Gizona  Emakumea**JAKINARAZPENA \*****2**
 Elektronikoa       Posta bidez
**HELBURU POSTALETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik) \***

Herrialdea \*

Helbidea \*

Zk

Pisua

Letra

PK \*

Udalerrria \*

Lurraldea \*

**JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT****3**

Posta elektronikoa (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

**JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK JASO NAHI DIREN HIZKUNTZA \*** Euskera Gaztelania**BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK****Titularraren betebeharraren fiskalen informazioa duen Zerga Administrazioaren Lurraldea / Probintzia \***

\_\_\_\_\_

**ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**

Diru-laguntza eskatu duen lagunaren aldeko ordezkari-ahalgoa, merkataritza erregistroan inskribatuta, data honetan \_\_\_\_\_ eman zen, \_\_\_\_\_ urteko diru-laguntzen eskabidean, eta geroztik, aldaketarik ez dela egon adierazten du eskatzaileak.

Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutuen kopia data honetan \_\_\_\_\_ eman zen, \_\_\_\_\_ urteko diru - laguntzen eskabidean, eta geroztik, aldaketarik ez dela egon adierazten du eskatzaileak.

Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

Administrazio Publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza bat eskatu diodala eta eman didatela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

Administrazio Publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza bat eskatu diodala eta oraindik erantzunaren zain nagoela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

Ez nago zigor eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, ere.

Ez nago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta horren erakunde autonomoek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuen esparruan hasi zen eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.

Egunean ditudala indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, araz zehaztu den bezala.

Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak dira.

Laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditut.

**ADOSTASUNAK****Nortasun datuak**

Deialdi honen atal kudeatzaileari dagokion Administrazioan baliabide elektroniko bidez, edo bere kasuan, aukeran dauden baliabide bidez, egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko baimena ematen diot.

**DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA**

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jurlaritzaren **Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzak** jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak **Laguntzak jasotzea dagokien entitateak** izeneko fitxategian sartu direla. Eusko Jurlaritzaren **Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzak** da fitxategi horren titularra, eta laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri, hark baitauzka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jurlaritzaren **Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzara** jotzea (Donostia kalea, 1, 01010, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

## ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

**1**

### ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

**Eskatzaileak bere izenean jokatzek badu**, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Titularra" aukeratu behar du eta "DATU PERTSONALAK" atalean Titularrari dagozkion datuak bete. Eskabidea titularrak sinatzen du.

**Eskatzaileak beste pertsona baten ordezkari gisa jokatzek badu**, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkarria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzek duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta berea datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

**Pertsona juridikoak, beti jokatzek dute ordezkari gisa**, beraz, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkarria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzek duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta berea datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

**2**

### JAKINARAZPENA

Eskatzaileak jakinarazpenak zein kanaletik jaso nahi dituen aukera dezake: posta bidez edo elektronikoa.

**POSTA BIDEZ:** "HELBURU POSTALETARAKO" atalean adierazitako helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak

**ELEKTRONIKOA:** eskatzaileak jakinarazpenak [www.euskadi.net/nirekudeaketak](http://www.euskadi.net/nirekudeaketak) -eko "Nire gestioak" ataleko sarrera ontzian jasotzen ditu. "Nire gestioak" atalean sartzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektronikoa bat izatea (ONA, Dnie, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT, ...)

**3**

### JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoa jasotzea erabaki badu, admisnitrazioak posta elektronikoa edo mugikor bidezko zerbitzu bat jartzen du zure eskura, jakinarazpen bat bidaltzen dizun bakoitzean zu ohartarazteko.

Nahi dituzun posta elektronikoa edota mugikor zenbaki idatz ditzakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartez bereiziz.

## II. ERANSKINA

### JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO JARDUERAREN AZALPEN-MEMORIA

Izartxo (\*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

#### DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK

Toki-erakundearen izena: *		_____	
IKZ: *	<input style="width: 50px; height: 15px; border: 1px solid black;" type="text"/>	-	<input style="width: 20px; height: 15px; border: 1px solid black;" type="text"/> <small>LETRA</small>
Helbidea: *	_____		zk: _____ Pisua: _____ Letra: _____
Udalerrria: *	_____	Lurraldea: *	_____ PK: * <input style="width: 30px; height: 15px; border: 1px solid black;" type="text"/>
Telefonoa: *	<input style="width: 100px; height: 15px; border: 1px solid black;" type="text"/>	Faxa:	<input style="width: 100px; height: 15px; border: 1px solid black;" type="text"/>
E-mail: *	_____		

#### HARREMANETARAKO PERTSONAREN DATUAK

Lehen abizena: *	_____	Bigarren abizena: *	_____
Izena: *	_____		
Zein sailletakoa den: *	_____		
Teléfonoa: *	<input style="width: 100px; height: 15px; border: 1px solid black;" type="text"/>	Faxa:	<input style="width: 100px; height: 15px; border: 1px solid black;" type="text"/>
E-mail: *	_____		

#### JARDUERAREN AURREKONTUA

Aurrekontua guztira: *	_____ €	Aurrekontua BEZik gabe: *	_____ €
------------------------	---------	---------------------------	---------

#### BANAKATUTAKO AURREKONTUA (BEZIK GABE)

Faseak	Aurrekontua
<b>Guztira</b>	

**DIRU-LAGUNTZA ZER JARDUERETARAKO ESKATZEN DEN****Izenburua: \*** \_\_\_\_\_**DIRU-LAGUNTZA ESKATU DEN PROIEKTUAREN FASEEN DESKRIBAPENA**



2011ko abuztuaren 16a, astearta

**JARDUERA GAUZATUTA GIZARTEAK IZANGO DUEN ABANTAILA**

Probetxua atera dion biztanle-kopurua, gutxi gorabehera: \* \_\_\_\_\_

Jarduera, nagusiki, zer biztanle-talderi zuzentzen zaion: \* \_\_\_\_\_

Proiektuaren izaera berritzailearen justifikazioa: \*

--

**JARDUERA TOKIKO AGENDA 21EN TOKIKO EKINTZA-PLANAREN ZER ILDO EDO PROGRAMATAKO DEN**

TEPen ildo-estrategikoa: \* \_\_\_\_\_

TEP programa: \* \_\_\_\_\_

**JARDUERA GAUZATZEKO EPEA**

(Jarri noiz hasi eta bukatuko den, edo, bestela, noiz gauzatzea aurreikusi den)

Jardueraren hasiera-data: \_\_\_\_\_

Jardueraren amaiera-data: \_\_\_\_\_

**BESTE FINANTZIAZIO ITURRI BATZUK**

Baduzu beste finantziazio iturririk?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
<b>Zein?</b>	<b>Zenbatekoa</b>
<b>Guztira</b>	

Beste laguntzarik eskatu duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
<b>Zein erakunderi?</b>	<b>Eskatutako zenbatekoa</b>	<b>Emandako zenbatekoa</b>
<b>Guztira</b>		

Sinadura:

Elkartearen arduraduna

### III. ERANSKINA

## JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO JARDUERA EGIN DELA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA

Izartxo (\*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

#### DIRU-LAGUNTZA ESKATU DEN JARDUERAREN IZENA

Izena: \*

#### DIRU-LAGUNTZAK JASO DUEN PROIEKTUA OSO-OSORIK EGIN DELA ADIERAZTEKO MEMORIA

**BESTE FINANTZIAZIO ITURRI BATZUK**

Beste finantziario iturririk izan duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
<b>Zein?</b>	<b>Zenbatekoa</b>
<b>Guztira</b>	

Beste laguntzarik jaso duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
<b>Zein erakundetatik?</b>	<b>Zenbatekoa</b>
<b>Guztira</b>	

Adierazten dut justifikazio honetan eta justifikazioari erantsitako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla.

**Sinadura:**

Erakundearen lehendakari arduraduna